## GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BATZARREKO AKTA

Murgian, 2022ko azaroaren 23an, 17:15ean, legeak agindu bezala deialdia egin ondoren, Zuiako Udaleko bilera gelan, Kuadrillako Batzarraren ohiko bilkura egin da.

Agustín Otsoa Eribeko Landa jauna buru dela eta Gorbeialdeko Kuadrillako gerente-letradua den Juan María Ezkurdia Salazar idazkari-lanetan ari dela, behean, abizenen araberako ordena alfabetikoan agertzen diren batzarkideak bildu dira:

## ACTA DE LA JUNTA DE CUADRILLA DE GORBEIALDEA

En Murgia, siendo las 17:15 horas del día 23 de noviembre de 2022, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebra en la sala de reuniones del Ayuntamiento de Zuia, sesión ordinaria de la Junta de Cuadrilla.

Preside la sesión el sr. Agustín Otsoa Eribeko Landa, actúa como secretario de la misma el gerente-letrado de la Cuadrilla de Gorbeialdea, Juan María Ezkurdia Salazar, y asisten las junteras y junteros que a continuación se relacionan por orden alfabético de apellidos:

**BATZARBURUA / PRESIDENTE**
OTSOA ERIBEKO LANDA, AGUSTÍN

**BATZARKIDEAK / JUNTEROS-AS**
ALONSO MORAZA, JUAN CARLOS
ALTUNA UGARTE, LIERNI
ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA, XABIER
ANTEPARA URIBE, M.ª BLANCA
BALANTZATEGI BEITIA, SANTIAGO
ELORZA BERGARA, INMA
ETXEBARRIA ASTONDOA, ITXASO
GORBEÑA GARCÍA, JAVIER
GUTIÉRREZ URKIZA, UNAI
IRCIO VEA-MURGUIA, ITZIAR

**EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTEN BATZARKIDEAK / JUNTEROS/AS QUE HAN EXCUSADO SU ASISTENCIA**
ARRANZ RUIZ DE AZUA, M.ª ARANZAZU
AXPE OYANGUREN, JON
JAINAGA INCIARTE, JUAN CRUZ
LÓPEZ DE BERGARA ASTOLA, IÑAKI
PEÑA OROBENGOA, JUAN ANTONIO
PÉREZ DE OBANOS OYARBIDE, PILAR
TELLAETXE ZARANDONA, ESTÍBALIZ

Jarraian, Batzarburuak eman dio hasiera bilkurari, eta aurreikusitako gai-zerrenda jorratu da. Jarraian, erabaki hauek hartu dira:

**1.- 2022.05.31ko OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Presidenteak batzarkideei galdetu die oharren bat egin nahi duten aurreko aktarekin lotuta.

Oharrik egon ez denez, akta onartu da, azaroaren 28ko 2568/1986 errege-dekretuko 91.1 artikuluan ezarritakoa betez, zeinak tokiko erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta erregimen juridikoaren legedia arautzen duen.

**2.- TURISMO BULEGOA: 2022. URTEKO MEMORIA ETA ZERBITZUAREN ESLEIPEN BERRIAREN PROPOSAMENA.**

Kuadrillako 2022ko turismo-bulegoari buruzko memoriaren berri eman da. Ekonomia sustapenerako teknikari Oihana Martínez Errastik egin du. Dokumentua bilera baino lehen bidali zaie Kuadrillako Batzarreko kide guztiei, azter dezaten.

Gerenteak esan du, ekonomia eta efizientzia arrazoiak direla medio, Kuadrillako bulegoa aldi baterako dagoela irekita. Bisitarien joan-etorri kopuruak hala eskatzen duen egunetan eta hilabeteetan bakarrik egoten da irekita, eta eskaerari ahalik eta ondoen erantzuteko ordutegirik egokiena izaten du.

A continuación, se abre el acto al público por orden de la presidencia, y se trata el orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE FECHA 31.05.2022.**

El presidente pregunta a las junteras y junteros presentes si tienen alguna observación que hacer al acta de la reunión anterior.

No presentándose observaciones, queda aprobada en virtud de lo previsto en el artículo 91.1 del R.D. 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

**2.- OFICINA DE TURISMO: MEMORIA AÑO 2022 Y PROPUESTA DE NUEVA LICITACIÓN DEL SERVICIO.**

Se da cuenta de la memoria relativa a la oficina de turismo de la Cuadrilla durante el año 2022, que ha sido elaborada por la técnica de promoción económica, Oihana Martínez Errasti. El documento ha sido enviado para su estudio a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla con anterioridad a la sesión.

El gerente comenta que, por razones de economía y eficiencia, la oficina de la Cuadrilla tiene apertura temporal; permaneciendo solo abierta durante los días/ meses en los que hay una afluencia de visitantes que lo aconseja, y con el horario más apropiado para atender mejor la

demanda.

Memorian adierazitakoaren arabera bulegoa, 2022 urtean zehar, guztira 1.121 orduz egongo da jendearentzat zabalik.

De conformidad con lo señalado en la memoria, la oficina va a estar abierta al público durante el año 2022 un total de 1.121 horas.

Memoria aurkeztu den datan, honakoa da gastuen eta diru-sarreren aurreikuspena:

La previsión de gastos e ingresos a la fecha de la presentación de la memoria es la siguiente:

Gastuak guztira: 34.466,48 euro, honela banakatuta:
.- Zerbitzu-kontratua: ............. 31.438,22 €
.- Telefonia/Internet: ................... 956,32 €
.- Garbiketa: ............................. 1.404,72 €
.- Argia:....................................... 667,22

Gastos totales: 34.466,48 euros, con el siguiente desglose:
.- Contrato del servicio: …... 31.438,22 €
.- Telefonía/internet:................. 956,32 €
.- Limpieza: ............................1.404,72 €
.- Luz: .......................................667,22 €

Diru-sarrerei dagokienez, jaso beharreko dirulaguntzak honako hauek izango direla uste da:
- Itourbask: 9.100 € (kopuru finkoa)
- AFA: 13.000 € (justifikatutako gainerako partiden araberako kopuru aldakorra).

En cuanto a los ingresos, se estima que las subvenciones a recibir van a ser las siguientes:
- Itourbask: 9.100 € (cantidad fija)
- DFA: 13.000 € (cantidad variable en función del resto de partidas justificadas).

Aurrekoaz gain, memorian zerbitzua jaso duen pertsona kopurua ageri da, eta baita beste hainbat gai ere.

Además de lo anterior, en la memoria se reflejan el número de personas atendidas, su procedencia, y otra serie de cuestiones.

Gerenteak esan du, gaiari buruzko informazio gehiago behar izanez gero edo alderdiren bat argitu behar izanez gero, sustapen ekonomikorako teknikariak esan duela laguntzeko prest dagoela.

El gerente comenta que, en caso de precisar más información o aclarar algún aspecto, la técnica de promoción económica le ha comentado que se pone a disposición de la persona que lo desee.

Aurrekoaren berri eman ondoren, puntu honetako bigarren atalari ekin zaio: 2023 urterako turismo bulegoaren jarraipen-proposamenari, hain zuzen ere.

Una vez dado cuenta de lo anterior, se aborda el segundo apartado del presente punto: la propuesta de continuidad de la oficina de turismo para el año 2023.

Martinez Errasti andreak 2023 urtean bulegoa irekitzeko egutegia egin du. Guztira,

La sra. Martínez Errasti ha elaborado el calendario de apertura para el año 2023, por

1.171 orduz emango da zerbitzua, eta 34.000 euro inguruko kostua izango du.

Gainera, sustapen ekonomikoko teknikariak gerenteari eskatu dio Kuadrillako Batzarreko kideei lehenengo aldiz baterako kontratazio bat egiteko aukera helarazteko, Kuadrillak turismoaren arloan dituen bi zerbitzu-kontratuak barne hartuta: turismo-bulegoko arreta-zerbitzuarena eta turismo-programen garapenaren arloko laguntza-zerbitzuarena. Gai-zerrendako hurrengo puntuan emango da horren berri.

Gerenteak esan du, sustapen ekonomikoko teknikariak adierazitakoaren arabera, turismo-zerbitzu guztiak kontratu bakar batean biltzeak, ikuspegi teknikotik, zerbitzu horien kudeaketa erraztuko lukeela, eta, horrela, efizientzia irabaziko litzatekeela, bai eta ekonomia ere, turismo-bulegoko zerbitzuaren ordu batzuk turismo-produktuen garapenaren arloan laguntza teknikoko zerbitzuari esleitutako pertsonak eman ditzakeela uste baita.

Gerente-letraduak esan du zerbitzu horiek emateko oinarrizko erabakia, izan modu bateratuan, izan banatuta, Kuadrillako Batzarrak hartu behar duela.

Erantzuna positiboa bada, kontratazio-espedientea egiteko eskumena lehendakaritzari dagokio, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenen kostua barne, ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa.

un total de 1.171 horas de prestación del servicio, con un coste estimado de 34.000 euros.

Además, la técnica de promoción económica ha solicitado al gerente que traslade a los miembros de la Junta de Cuadrilla la posibilidad de que por primera vez se haga una contratación conjunta que incluya los dos contratos de servicios que en materia de turismo tiene la Cuadrilla: el del servicio de atención de la oficina de turismo y el de Asistencia en materia de desarrollo de programas turísticos, del que se dará cuenta en el punto siguiente del orden del día.

Comenta el gerente que, de acuerdo con lo expresado por la técnica de promoción económica, aunar en un único contrato todos los servicios turísticos facilitaría desde el punto de vista técnico la gestión de los mismos, con lo que se ganaría en eficiencia, y también en economía, porque se estima que parte de las horas del servicio de la oficina de turismo podrían prestarse por la persona asignada al servicio de asistencia técnica en materia de desarrollo de productos turísticos.

El gerente-letrado informa que la decisión sobre el fondo de si se prestan estos servicios, tanto de manera conjunta como separada, debe ser adoptada por la Junta de Cuadrilla.

En caso de respuesta positiva, la competencia para llevar a cabo el expediente de contratación le correspondería a la presidencia si el valor estimado del contrato, incluyendo el coste de las prórrogas, no superara el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto.

Ehuneko hori gainditZ gero, Kuadrillako Batzarrak izango luke eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Aurrekoa azaldu ondoren, gaiaz eztabaidatuta, Gorbeialdeko Kuadrillaren Batzarrak, bertaratutako 11 kideen aho bateko botoarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Lehiaketa deitzea, 2023an zehar (luzatzeko aukerarekin) Turismo Informaziorako Bulegoaren arreta-zerbitzua emateko.

**BIGARRENA:** Zerbitzu eskudunak kalkulu bat egitea turismo-bulegoko arreta-zerbitzuaren eta turismo-programak garatzeko laguntza-zerbitzuaren prestazio-orduei eta kostuei buruz, bi zerbitzuak banatuta. Horrez gain, zerbitzu-orduen eta kostuen kalkulu berbera egitea, bi zerbitzuak modu bateratuan kontratatuz gero, luzapenak barne.

Egindako kalkuluen ondorioz kostuak aurreztea aurreikusten bada, eta zerbitzu guztiak enpresa bakar batekin kudeatzea komeni bada, turismo-bulegoaren arreta-zerbitzuaren eta turismo-programen garapenaren arloko laguntza-zerbitzuaren kontratua lizitazio bakar batean sustatzea erabaki da.

**HIRUGARRENA:** Kuadrillako Presidenteari edo legez bera ordezkatzen duenari ahalmena ematea akordio hau exekutatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko.

En caso de superarse dicho porcentaje, la competencia sería de la Junta de Cuadrilla, de acuerdo con lo señalado en la disposición adicional segunda de la Ley de contratos del sector público.

Expuesto lo anterior, tras debatir el asunto, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Convocar licitación para prestar el servicio de atención de la Oficina de Información Turística durante el año 2023, con posibilidad de prórroga.

**SEGUNDO:** Que por el servicio competente se elabore un cálculo estimado de las horas de prestación y de los costes del servicio de atención de la oficina de turismo y del servicio de asistencia en materia de desarrollo de programas turísticos de manera separada. Por otro lado, los mismos cálculos de horas de prestación y de costes en caso de una contratación conjunta de ambos servicios, prórrogas incluidas.

Si de los cálculos realizados resultara una previsión de ahorro de costes, unido a la conveniencia de gestionar todos los servicios con una única empresa, se acuerda promover en una única licitación el contrato del Servicio de atención de la oficina de turismo y de asistencia en materia de desarrollo de programas turísticos.

**TERCERO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla o a quien legalmente le sustituya, para que formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**LAUGARRENA:** Zuiako Udalari eskatzea adieraz diezaiola Gorbeialdeko Kuadrillari, aurreko urteetan bezala Zuiako Eztiaren Museorako bisita-zerbitzua kontratatu nahi duen ala ez.

Erantzuna baiezkoa bada, presidenteari ahalmena ematea horri dagokion kudeaketa-agindurako hitzarmena sinatzeko.

**BOSGARRENA:** ITOURBASKi Gorbeialdeko Kuadrillako turismo-bulegoaren jarraipenaren berri ematea.

**3.- PROGRAMA TURISTIKOAK GARATZEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK.**

Presidenteak adierazi du Kuadrillak hainbat urte daramatzala aholkularitza teknikorako zerbitzua kontratatzen, turismo-programa eta -jardueren garapena laguntzeko.

Zerbitzuak urte horietan gauzatu dituen funtzioak, ekonomiaren sustapenerako teknikariaren ikuskaritzapean, eta Bizkaiko Gorbeialde LGEko teknikariekin koordinatuta, ondorengoak izan dira, nagusiki:

A.- Kuadrillari laguntzea turismoaren dinamizazioaren eta garapenaren esparruan.
B.- Eskualdeko enpresei aholkularitza ematea, lehiakortasun-programak ezarttzeko eta garatzeko, instalazioen segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko, teknologia berrien erabilera ona eta aprobetxamendua sustatzeko, bezeroen arreta hobetzeko… helburuarekin.

**CUARTO:** Solicitar al Ayuntamiento de Zuia que manifieste si desea que la Cuadrilla de Gorbeialdea contrate la prestación del servicio de visitas al Museo de la Miel de Zuia, al igual que en años anteriores.

En caso de respuesta afirmativa, facultar al presidente para la firma del oportuno convenio de encomienda de gestión.

**QUINTO:** Comunicar a ITOURBASK la continuidad de la oficina de turismo de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

**3.- SERVICIOS DE ASISTENCIA EN MATERIA DE DESARROLLO DE PROGRAMAS TURÍSTICOS.**

El presidente comenta que, desde hace ya varios años, la Cuadrilla ha venido contratando el servicio de asistencia técnica para el apoyo en el desarrollo de los programas y actuaciones turísticas.

Las funciones que ha desarrollado el servicio durante estos años, bajo supervisión de la técnica de promoción económica, y en coordinación con el personal técnico de la ADR Gorbeialde de Bizkaia, son principalmente las siguientes:

A.- Apoyo a la Cuadrilla en materia de dinamización y desarrollo turístico.
B.- Acompañamiento a empresas de la comarca para la implantación y desarrollo de los programas de competitividad, con la idea de mejorar la seguridad y confort de las instalaciones, el buen uso y aprovechamiento de las nuevas tecnologías, la atención a la clientela, etc.

2022an 1.440 ordu izan ditu zerbitzu horrek, eta horietatik 1.000 Kuadrillaren laguntzarako lan-lerroari dagozkio, eskualdeko turismoa dinamizatu eta garatzeko; gainerakoa, “Kode etikoa” izeneko Eusko Jaurlaritzaren programana aurten parte hartu duten Kuadrillako 22 enpressen akonpainamendu eta aholkularitzarako izan da.

Memorian jasotakoaren arabera, 2022 urterako aurreikusitako kostua 50.407,63 eurokoa da, BEZ barne.

Eusko Jaurlaritzatik eta Arabako Foru Aldunditik jaso beharreko diru-laguntzei dagokienean, aurreikuspena da, biak batuta, zenbateko osoa 40.170 eurokoa izatea. Beraz, zerbitzu osoaren %80 inguru izango litzateke.

Kuadrillak 2021ean lizitatu zuen zerbitzu-kontratua aurten amaituko da, eta ezin izango da luzatu. Horregatik, Martinez Errasti andreak zerbitzua kontratatzeko proposamen berri bat egin du, Kuadrillako Batzarrean eztabaidatzeko. Bertan, guztira, 1.290 ordu aurreikusten dira 2023rako. Ordu horietatik 850 dinamizazioan eta 440 lehiakortasunean (22 enpresa, bakoitzak 20 ordu). Aurreikusitako kostuari dagokionez, 50.500 euro ingurukoa izango dela uste da.

Horiek horrela, gaia eztabaidatu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 11 kideak bat etorrita, honakoa **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** 2023. urtean programa turistikoen garapenaren arloan laguntza

El número de horas prestadas en el año 2022 ha sido de 1.440, de las que 1.000 corresponden a la línea de apoyo a la Cuadrilla en la dinamización y desarrollo del turismo comarcal, y el resto al acompañamiento y asesoramiento a las 22 empresas de la Cuadrilla que han participado este año en el programa de Gobierno Vasco denominado “Código ético”.

De acuerdo con lo recogido en la memoria, el coste previsto para el año 2022 va a ser de 50.407,63 euros, IVA incluido.

En cuanto a las subvenciones a recibir por parte de Gobierno Vasco y de la Diputacion Foral de Álava, se prevé que sean por un importe conjunto de 40.170 euros, lo que supone cerca del 80% del coste total del servicio.

El contrato de servicios que licitó la Cuadrilla en el año 2021 vence este año, sin posibilidad de prorrogarlo. Por ello, la sra. Martínez Errasti ha hecho una nueva propuesta de contratación del servicio de cara a su debate en la Junta de Cuadrilla, en la que se contemplan un total de 1.290 horas para el año 2023. De dichas horas, 850 h. serían en dinamización y 440 en competitividad (22 empresas a razón de 20 horas por cada una). En cuanto al coste previsto, se estima que sea en torno a los 50.500 euros.

Expuesto lo anterior, tras debatir el asunto, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Convocar licitación para prestar el servicio de asistencia en materia de

zerbitzua emateko lizitazioa deitzea, luzatzeko aukerarekin.

**BIGARRENA:** Turismo bulegoko arreta zerbitzuari buruzko puntuan erabaki den bezala, zerbitzua turismo bulegoko arreta zerbitzuarekin batera lizitatzeko aukera aztertzea, efizientzia, ekonomia eta zerbitzuen kudeaketa hobea dela eta.

**HIRUGARRENA:** Kuadrillako lehendakariari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren agiri guztiak formalizatzeko.

**4.- GORBEIALDEKO KUADRILLAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA.**

Maiatzaren 23ko Ebazpenaren bidez, zeina 2022ko maiatzaren 30eko 62. ALHAOn eta 2022ko ekainaren 21eko 119 zk.dun EHAAn argitaratu zen, Gorbeialdeko Kuadrillako aldi baterako enplegua egonkortzeko lan-eskaintza publikoa onartu zen.

Lan-eskaintza publiko hori enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren babesean egin zen.

Aipatutako Legeak aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen du. Tasa horren barruan sartzen dira Administrazio Publikoetan jasota dauden lanpostuen zerrendetan, plantilletan edo giza baliabideak antolatzeko beste moduren

desarrollo de programas turísticos durante el año 2023, con posibilidad de prórroga.

**SEGUNDO:** Tal y como se ha acordado en el punto relativo al servicio de atención de la oficina de turismo, estudiar la posibilidad de licitar el servicio de manera conjunta con el de atención de la oficina de turismo, por si resulta conveniente hacerlo de esa manera por razones de eficiencia, economía y mejor gestión de los servicios.

**TERCERO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla o a quien legalmente le sustituya, para que formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**4.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA.**

Mediante resolución de 23 de mayo, publicada en el BOTHA número 62, de 30 de mayo de 2022, y en el BOPV número 119, de 21 de junio de 2022, se aprobó la Oferta Pública de Empleo de estabilización de empleo temporal de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

Dicha oferta de publica de empleo se realizó al amparo de lo dispuesto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

La citada Ley autoriza una tasa adicional para la estabilización de empleo temporal que incluye las plazas de naturaleza estructural que, estén o no dentro de las relaciones de puestos de trabajo, plantillas u otra forma de organización de recursos

batean egon edo ez, eta aurrekontu-zuzkidura izanik, 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan gutxienez aldi baterako eta etenik gabe okupatuta egon diren egiturazko lanpostuak. Horrez gain, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik harreman hori duten langileek aldi baterako betetzen dituzten egiturazko plaza hutsak sartzen dira.

humanos que estén contempladas en las distintas Administraciones Públicas y estando dotadas presupuestariamente, hayan estado ocupadas de forma temporal e ininterrumpidamente al menos en los tres años anteriores a 31 de diciembre de 2020. Adicionalmente, se incluyen las plazas vacantes de naturaleza estructural ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta naturaleza, anterior a 1 de enero de 2016.

Egoera horretan, aipatutako lehendakaritzaren ebazpena onartu zen, eta horretarako ez zen beharrezkoa plazak erakundearen lanpostuen zerrendan egotea; izan ere, 20/2021 Legearen 2.1 artikuluak berariaz aurreikusten du, “*lanpostu-zerrenden barruan egon ala ez…*”, plaza horiek aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuan sartuko direla.

En este escenario, se aprobó la resolución de presidencia citada, para la cual no era necesario que las plazas se encontraran en la relación de puestos de trabajo de la Entidad pues expresamente el artículo 2.1 de la Ley 20/2021 prevé que *“esté o no dentro de las relaciones de puestos de trabajo….”,* tales plazas serán objeto de estabilización de empleo temporal.

Hala izanik ere, nahitaezkoa da plazak lanpostu zerrendan egotea, horiei dagokien lan-eskaintza publikoaren deialdia egiteko. Deialdi hori epe laburrera egitea aurreikusten da.

Lo que sí es necesario es que las plazas estén en la RPT para efectuar la correspondiente convocatoria de la OPE, que se prevé realizar en breves fechas.

Aurrekoa ikusirik, 2022 urteko Gorbeialdeko Kuadrillako Lanpostuen Zerrendaren aldaketa-proposamen bat egin da.

A la vista de lo anterior, se ha elaborado una propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de la Cuadrilla de Gorbeialdea para el año 2022.

Proposamen hori sindikatuekin adostu da, aurretik negoziazio kolektiboa egin ondoren. Negoziazio horretan parte hartzera gonbidatu dira euskal tokiko administrazioaren esparruko lau sindikatu nagusiak eta Kuadrillako langileen ordezkari sindikala.

Dicha propuesta ha sido consensuada con la parte sindical, previa negociación colectiva a la que se ha invitado a tomar parte a los cuatro principales sindicatos en el ámbito de la administración local vasca, y a la delegada sindical del personal de la Cuadrilla.

Aurrekoa ikusirik, eta gaia eztabaidatu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako

Expuesto lo anterior, y tras debatir el asunto, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la

Batzarrak, bertaratutako 11 kideen aho bateko botoarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Gorbeialdeko Kuadrillako 2022. urterako lanpostuen zerrendaren aldaketa hasieran onestea, Kuadrillako Batzarrari aurkeztutako proposamenean jasotzen diren ezaugarriekin.

**BIGARRENA:** Indarrean dagoen araudiaren arabera, espediente hori jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Epe horretan, edozein pertsonak aztertu ahal izango du administrazio-espedientea kuadrilla honetako bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak eta erreklamazioak egin daitezen.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hori behin betikotzat jotzea, erreklamaziorik ez balego.

**LAUGARRENA:** Erreklamaziorik balego, gaiari buruzko erabaki berri bat hartzea, hilabeteko epean.

**BOSGARRENA:** Behin betiko erabakia argitaratzea, araututako moduan eta epean.

**5.- AZTERKETA ESKUBIDEENGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ONARTZEA.**

Ikusirik Gorbeialdeko kuadrillak deitutako azterketa-eskubideengatiko edo beste hautaketa-proba batzuengatiko tasa

unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente la modificación de la relación de puestos de trabajo de la Cuadrilla de Gorbeialdea para el año 2022, con las características que se contienen en la propuesta presentada a la Junta de Cuadrilla.

**SEGUNDO:** De conformidad con la normativa vigente, exponer dicho expediente a información pública por un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el siguiente hábil al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA.

Durante dicho plazo, el expediente administrativo podrá ser examinado por cualquier persona en las oficinas de esta cuadrilla para que, en su caso, se formulen las alegaciones y reclamaciones que se estimen oportunas.

**TERCERO:** Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones.

**CUARTO:** Si hubiese reclamaciones, adoptar nuevo acuerdo al respecto en el plazo de 1 mes.

**QUINTO:** Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentario.

**5.- APROBACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR DERECHOS DE EXAMEN.**

Visto el informe técnico-económico elaborado por el gerente-letrado para el establecimiento de la tasa por derechos de

ezartzeko gerente-letraduak egindako txosten tekniko-ekonomikoa.

Ikusirik presidenteak aurkeztutako ordenantza-proposamena, eta horren kopia bilkuraren aurretik bidali zaiela Kuadrillako batzarkide guztiei, azter dezaten.

Ikusirik Kontuen, Ekonomiaren eta Ogasunaren Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Aurrekoa azaldu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 11 kideen aho bateko botoarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Behin-behineko onarpena ematea azterketak edo bestelako hautaprobak egiteko eskubideagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalari.

**BIGARRENA:** Tasaren kobrantza ezartzea, sortzapenaren arabera.

**HIRUGARRENA:** Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsitakoaren, 19.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen da espedientea, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

**LAUGARRENA:** Jendaurrean ikusgai egoteko epea bukatu ondoren, Kuadrillako

examen u otras pruebas selectivas convocadas por la cuadrilla de Gorbeialdea.

Vista la propuesta de ordenanza presentada por el presidente, cuya copia se ha remitido con anterioridad a la sesión a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla para su análisis.

Visto el dictamen favorable de la Comisión informativa de Cuentas y de Economía y Hacienda.

Expuesto lo anterior, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar provisionalmente la Ordenanza fiscal reguladora de la tasa por derecho a examen u otras pruebas selectivas.

**SEGUNDO:** Establecer el cobro de la tasa según se produzca el devengo.

**TERCERO:** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.2. del Texto Refundido de la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, se somete el expediente a información pública durante el plazo de treinta días hábiles, a contar a partir del siguiente, también hábil, al de la publicación de este anuncio en el BOTHA, durante los cuales las personas interesadas podrán examinarlo y presentar las reclamaciones que consideren oportunas.

**CUARTO:** Finalizado el periodo de exposición pública, esta Junta de Cuadrilla

Batzarrak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak, eta behin betiko erabakia hartuko du.

**BOSGARRENA:** Aipatutako epean ez balitz erreklamaziorik aurkeztuko, erabaki hori behin betiko onartutzat joko da.

**SEIGARRENA:** Behin betiko erabakia, edo automatikoki izaera hori hartzen duen behin-behineko erabakia, eta Ordenantzaren testu osoa, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

**6.- ARABAKO FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITURA ETA MUGIKORTASUN SAILAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, NEGUKO BIDEZAINTZA LANAK EGITEKO, HALA BADAGOKIO.**

Kuadrillako Batzarrean onartzeko aurkeztu da Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegitura eta Mugikortasun-Sailaren eta Gorbeialdeko Kuadrillaren arteko lankidetza-hitzarmen berria, Gorbeialdeko Kuadrillaren lurralde-eremuan Foru-Errepideen Sarean neguko bide-lanak egiteko.

Batzordeburuak adierazi Gorbeialdeko Kuadrilla, Arabako gainerako kuadrillek bezala, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan jarduten dutela foru-eskumeneko zerbitzu hori emateko.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera,

resolverá las reclamaciones que se presenten, adoptando el acuerdo definitivo.

**QUINTO:** En el supuesto de que no se presenten reclamaciones durante referido plazo, se entenderá definitivamente adoptado este acuerdo.

**SEXTO:** El acuerdo definitivo o bien el provisional elevado automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de la Ordenanza, se publicarán el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

**6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS Y MOVILIDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA PARA LA REALIZACIÓN DE TRABAJOS DE VIALIDAD INVERNAL.**

Se presenta para su aprobación en Junta de Cuadrilla el nuevo convenio de colaboración entre el Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava y la Cuadrilla de Gorbeialdea para la realización de trabajos de vialidad invernal en la Red Foral de Carreteras dentro del ámbito territorial de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

El presidente comenta la Cuadrilla de Gorbeialdea, al igual que el resto de Cuadrilla de Álava, viene colaborando con la Diputación Foral de Álava para prestar ese servicio de competencia foral.

De acuerdo con lo previsto en la Ley 40/2015 de Régimen jurídico del Sector Público, la

hitzarmenaren iraupena ez da lau urtetatik gorakoa izango, baina beste lau urtez luzatzea erabaki daiteke.

Hitzarmenean lanak antolatzeko eta kudeatzeko baldintza berberak mantentzen badira ere, orain arte indarrean egon den hitzarmenarekiko berrikuntza nagusiak ekonomikoak dira.

Ildo horretan, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Orduko gehieneko prezioen % 14,30eko igoera (Estatuko KPIaren aldaketa 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko urriaren 31ra arte).

- Neguko bidezaintzarako hitzartutako gastuen artean sartzen da ekipamenduen erabilgarritasunari dagokiona. 60 €/hileko (BEZik gabe) aktibazioa egiten ez den hilabete bakoitzeko, gehienez 300 € kanpainako (BEZik gabe).

- Ordaindu beharreko kontzeptu gisa sartzen da ekipoak muntatu eta desmuntatzeari dagokiona. (2 ordu aktibazio-aldi bakoitzean, ordu horiek benetako lan-denborari gehituko zaizkionak).

Hitzarmenaren edukia eta formalizatzeko arrazoiak aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 11 kideak bat etorrita, honakoa **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegitura eta Mugikortasun-Sailaren

duración del convenio no será superior a cuatro años, si bien se podría acordar su prórroga por otros cuatro años adicionales.

Si bien en el convenio se mantienen las mismas condiciones organizativas y de gestión de los trabajos, las principales novedades respecto al convenio vigente hasta la fecha son de orden económico.

En este sentido, cabe destacar las siguientes:

- Subida de 14,30% de los precios máximos por hora (variación del IPC del IPC estatal desde el 1 de enero de 2019 hasta el 31 de octubre de 2022).

- Se incluye como concepto a abonar entre los gastos convenidos de vialidad invernal el correspondiente a la Disponibilidad de los equipos. Con un precio de 60 €/mes (IVA no incluido) por cada mes que no se realice la activación, hasta un máximo de 300 € por campaña (IVA no incluido).

- Se incluye como concepto a abonar el correspondiente al montaje y desmontaje de los equipos. (2 horas en cada periodo de activación que se añadirán al tiempo de trabajo efectivo).

Analizado el contenido del convenio y las razones que interesan su formalización, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar el convenio de colaboración entre el Departamento de

eta Gorbeialdeko Kuadrillaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea, Gorbeialdeko Kuadrillaren barruan Foru-Errepideen Sarean neguko bidezaintza lanak egiteko.

**BIGARRENA:** Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen egintza guztiak sinatzeko.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari helaraztea.

**7.- GORBEIALDEKO KUADRILLAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA LUZATZEA.**

2019ko maiatzaren 20an egindako Kuadrillako Batzarrean aho batez onartu zen Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2019-2022 I. Plana.

Kuadrillako berdintasun-teknikariak idazki bat aurkeztu du, plana oraindik bete gabe dagoela pentsatzeko arrazoiak azaltzeko. Hori dela eta, plana ebaluatzeko prozesua hasi baino lehen eta plan berri bat egin aurretik, komeni da egungoa luzatzea, bertan ezarritako helburuak osorik bete arte.

Aurrekoa azalduta, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 11 kideen aho bateko aldeko botoarekin, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Gorbeialdeko Kuadrillako eta hura osatzen duten udalerrietako

Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputación Foral de Álava y la Cuadrilla de Gorbeialdea para la realización de trabajos de vialidad invernal en la Red Foral de Carreteras dentro del ámbito territorial de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

**SEGUNDO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

**TERCERO:** Dar traslado del presente acuerdo a la Diputación Foral de Álava.

**7.- PRÓRROGA DEL I. PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA.**

En la Junta de Cuadrilla celebrada el 20 de mayo de 2019 se aprobó por unanimidad el I. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Cuadrilla de Gorbeialdea 2019-2022.

La técnica de igualdad de la Cuadrilla ha presentado un escrito en el que expone las razones por las que considera que el plan todavía no se ha cumplido y que, por ello, antes de comenzar el proceso de evaluación de dicho plan y con la elaboración de uno nuevo, conviene la prórroga del actual hasta que los objetivos marcados en él se cumplan en su totalidad.

Expuesto lo anterior, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar la prórroga del I. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren luzapena onartzea, 2024ko abenduaren 31ra arte.

**BIGARRENA:** Akordio honen berri ematea Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari.

**8.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDE-GAIAK ETA PRESAKOAK.**

Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, aho batez eta presakotzat jo ondoren, gai-zerrendan aurreikusi gabeko puntu hau sartzea erabaki du:

**8.1.- GORBEIALDEKO KUADRILLAK ARABAKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA, ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.**

Hitzarmen honen xedea da Gorbeialdeko kuadrillak (aurrerantzean, toki-erakundeak) Arabako Foru Aldundiari egiten dion kudeaketa-gomendioa formalizatzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako lehiaketa-sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez.

Zehazki, Arabako Foru Aldundiaren esku uzten da lehiaketan Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jarduera materiala eta teknikoa egitea, behin toki-erakundeak autobaremazio handiena duten izangai

Cuadrilla de Gorbeialdea y de los municipios que la integran hasta el 31 de diciembre de 2024.

**SEGUNDO:** Dar traslado del presente acuerdo a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

**8.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.**

La Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea por unanimidad y previa declaración de urgencia, acuerda incluir el siguiente punto no previsto en el orden del día:

**8.1.- ENCOMIENDA DE GESTIÓN DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA A LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA PARA LA GESTIÓN MATERIAL DE LOS PROCESOS DE ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL DERIVADOS DE LA LEY 20/2021, DE 28 DE DICIEMBRE.**

El convenio que se presenta ante la Junta de Cuadrilla para su aprobación tiene por objeto formalizar la encomienda de gestión que realiza la Cuadrilla de Gorbeialdea a la Diputación Foral de Álava en relación con los procesos de estabilización por el sistema de concurso derivados de las disposiciones adicionales sexta y octava de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

En concreto, se le encomienda a la Diputación Foral de Álava la realización de la actividad de carácter material y técnico que corresponde al Tribunal Calificador en el concurso, una vez remitida por la entidad

onartuek alegatutako merezimenduen egiaztagiriak bidali ondoren.

Hitzarmenaren edukia eta berau sinatzeko arrazoiak aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako 11 kideen aho bateko botoarekin, **ADOSTU DU:**

**LEHENENGOA:** Gorbeialdeko kuadrillak Arabako Foru Aldundiari egindako kudeaketa-gomendioa onartzea, abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialerako.

**BIGARRENA:** Kuadrillako presidenteari ahamena ematea, akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren garapen-jarduera guztiak sinatzeko.

**HIRUGARRENA:** Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea.

Aurreikusitako gai-ordenarekin jarraitu aurretik, presidenteak hitz batzuk esan ditu hil berria den Rufino Saez de ibarra Ruiz dee Arbulo gogoratzeko. Arratzua-Ubarrundiako alkate izan zen urte luzez; eta, horrez gain, Gorbeialdeko Kuadrillako batzarkide eta Mairuelegorreta LGEko presidente ere izan zen.

Jarraian, presidenteak esan du Begoña Ganzabal Zurbitu andreak eskatu diola Kuadrillako batzarkide guztiei bere partez honakoa adierazteko: Kuadrillako batzarkide izan den epealdi osoan zehar, eta baita Kuadrillako presidenteorde izan denean ere,

local la documentación acreditativa de los méritos alegados por las personas aspirantes admitidas con mayor autobaremación.

Analizado el contenido del convenio y las razones que interesan su formalización, la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, con la unanimidad en el voto de sus 11 miembros presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO:** Aprobar el convenio para la encomienda de gestión de la Cuadrilla de Gorbeialdea a la Diputación Foral de Álava para la gestión material de los procesos de estabilización de empleo temporal derivados de la ley 20/2021, de 28 de diciembre.

**SEGUNDO:** Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma de cuantos actos de desarrollo sean precisos efectuar para llevar a cabo el presente acuerdo.

**TERCERO:** Dar traslado del presente acuerdo a la Diputación Foral de Álava.

Antes de continuar con el orden del día previsto, el presidente dice unas palabras en recuerdo de Rufino Sáez de Ibarra Ruiz de Arbulo, quien fue durante muchos años alcalde de Arratzua-Ubarrundia, además de juntero de la Cuadrilla de Gorbeialdea y presidente de la ADR Mairuelegorreta, y que ha fallecido recientemente.

A continuación, el presidente comenta que la sra. Begoña Ganzabal Zurbitu le ha pedido que trasmita a todos los miembros de la Junta de Cuadrilla que durante todo el tiempo que ha sido integrante de la Junta de Cuadrilla, y también durante el tiempo que ha

oso gustura aritu dela zegozkion ardurak betetzen, eta beti saiatu dela Kuadrillaren onurarako lan egiten.

ejercido como vicepresidenta de la misma, ha estado muy a gusto desempeñando sus funciones y que siempre ha procurado trabajar en beneficio de la Cuadrilla.

Presidenteak esan du fede ematen duela horrela izan dela, eta eskerrak eman dizkio.

El presidente comenta que da fe de que ha sido así, y se lo agradece.

**9.- PRESIDENTZIAREN TXOSTENAK.**

**9.- INFORMES DE PRESIDENCIA.**

**9.1.- 2022. urteko 2. hiruhilekoko ekonomia eta finantza txostena.**

**9.1.- Informe económico-financiero del 2º trimestre del año 2022.**

Aurrekontuaren Gauzapenaren Arauaren 6. artikuluan datorrenarekin bat eginez, 2022ko apiriletik ekainerako epealdiari dagokion informazioa jakinarazi da, ondoren zehazten den bezala:

De conformidad con lo expuesto en el artículo 6 de la Norma de Ejecución Presupuestaria, se da cuenta de la siguiente información referida a los meses de abril a junio de 2022:

.- Gastu eta sarreren aurrekontu arruntaren gauzapenaren egoera.
.- Itxitako aurrekontuen gauzapenaren egoera.
.-Kontaketa-aktak.

.- Estado de ejecución del Presupuesto corriente de Gastos y del de Ingresos.
.- Estado de ejecución de presupuestos cerrados.
.- Actas de arqueo.

Era berean, aipatutako epealdian ondorengo aurrekontu-aldaketak egin direla jakinarazi da:

Asimismo, se informa que en dicho periodo se han producido las siguientes modificaciones presupuestarias:

.- Kreditu-Gaikuntza 2022/03 (2022/06/22).

.- Kreditu-Gaikuntza 2022/04 (2022/07/08).

.- Habilitación de crédito 03/2022 (20/06/2022).
.- Habilitación de crédito 04/2022 (08/07/2022).

**9.2.- 2022. urteko 3. hiruhilekoko ekonomia eta finantza txostena.**

**9.2.- Informe económico-financiero del 3^er^ trimestre del año 2022.**

Aurrekontuaren Gauzapenaren Arauaren 6. artikuluan datorrenarekin bat eginez, 2022ko uztailetik irailerako epealdiari dagokion informazioa jakinarazi da, ondoren zehazten den bezala:

De conformidad con lo expuesto en el artículo 6 de la Norma de Ejecución Presupuestaria, se da cuenta de la siguiente información referida a los meses de julio a septiembre de 2022:

.- Gastu eta sarreren aurrekontu arruntaren gauzapenaren egoera.
.- Itxitako aurrekontuen gauzapenaren egoera.
.-Kontaketa-aktak.

Era berean, jakinarazi da aipatutako epealdian ez dela aurrekontu-aldaketarik izan.

**10.- JAKINARAZPEN OFIZIALAK.**

**10.1. A.FA.ko Diputatu Nagusiaren Saila (22-06-03):** 2022rako "Gorbeialdeko mintzalaguna" programarako 9.000 euroko zuzeneko dirulaguntza eman dela jakinarazi dute.
**10.2. A.FA.ko Diputatu Nagusiaren Saila (22-06-28):** 2022. urtean euskara sustatzeko jardueretarako 1.263,91 euroko dirulaguntza eman dela jakinarazi dute.

**10.3. A.FA.ko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren saila (22-06-30):** 38 zkdun. ebazpena bidali dute; horren bidez, 52.000 euroko dirulaguntza eman da turismo-jardueretarako.
**10.4. A.FA.ko Diputatu Nagusiaren Saila (22-08-03):** Abuztuaren 2ko 477/22 Erabakia bidali dute; horren bidez, 5.751,69 euroko dirulaguntza eman da 2022an berdintasun-jarduerak egiteko.
**10.5. Lanbide (22-09-08):** 2022ko ekitaldirako enplegua sustatzeko ekintzetarako 81.256,00 euroko dirulaguntza ematen duen ebazpena bidali dute.

**10.6. Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila (22-10-25):** 52.110,75 euroko laguntza ematen duen ebazpena bidali dute.

.- Estado de ejecución del Presupuesto corriente de Gastos y del de Ingresos.
.- Estado de ejecución de presupuestos cerrados.
.- Actas de arqueo.

Asimismo, se informa que en dicho periodo no se han producido modificaciones presupuestarias.

**10.- COMUNICACIONES OFICIALES.**

**10.1. Dpto. Diputado General de la D.F.A. (03-06-22):** Notifican la concesión de una subvención directa de 9.000 euros para el programa "Gorbeialdeko mintzalaguna" para el año 2022.
**10.2. Diputado General de la D.F.A. (28-06-22):** Informan de la concesión de una subvención de 1.263,91 euros para actividades de promoción de euskera, año 2022
**10.3. Dpto. Fomento del Empleo, Comercio y Turismo de la D.F.A (30-06-22):** Remiten resolución nº 385 mediante la cual se concede una subvención de 52.000 euros para actividades turísticas.
**10.4. Dpto. Diputado General de la D.F.A. (03-08-22):** Remiten Acuerdo 477/22 de 2 de agosto por que se concede una subvención de 5.751,69 euros para actividades de igualdad durante el año 2022.
**10.5. Lanbide (08-09-22):** Remiten Resolución por la que se concede una subvención de 81.256,00 euros para acciones de promoción de empleo para el ejercicio 2022.
**10.6. Dpto. Turismo, Comercio y Consumo de G.V. (25-10-22):** Remiten Resolución por la que se otorga una ayuda de 52.110,75 euros.

**10.7. Lanbide (22-11-07):** 2022ko ekitaldirako ekintzaileentzako laguntzen ebazpena bidali dute. Erakundea: 2.000 € (ENTI) eta 4.000 € (ENTA). Sustatzaileak: 5.750 € (APEI) eta 6.675 € (APEA)

**11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez da halakorik egon.

Beste gairik ez dagoenez, Kuadrillako presidenteak amaitutzat eman du bilera, goiburuan adierazitako eguneko 17:45ean.

**10.7. Lanbide (07-11-22):** Remiten resolución de las ayudas de apoyo a las personas emprendedoras para el ejercicio 2022. Entidad: 2.000 € (ENTI) y 4.000 €(ENTA). Promotores/as: 5.750 € (APEI) y 6.675 € (APEA)

**11.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el presidente de la Cuadrilla da por terminada la sesión, siendo las 17:45 h, del día indicado en el encabezamiento.